



Murgian, bi mila eta hogeita biko urtarrilaren hogeitazazpian, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutierrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari lanak egin ditu.-

### **ALKATEA**

UNAI GUTIERREZ URKIZA JN. (EH Bildu)

### **BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**

INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)

AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)

ALAITZ TRESSERRAS ANGULO AND. (EH Bildu)

NEREA IDIGORAS LASAGA AND. (EH Bildu)

DORLETA MARTINEZ DE ALBENIZ PEREZ (EH Bildu)

ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (ZUIA BAI)

JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZUIA BAI)

CONCHI LOPEZ LOPEZ AND. (ZUIA BAI)

ANDRES LAFUENTE OTXOA JN. (ZUIA BAI)

LUIS MARIA SAUTU APELLANIZ JN. (PP)

Arratsaldeko zazpitan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

### **1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA**

Aurreko bilkuraren akta ikusirik, onartzea erabaki du Udalbatzak aho batez.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.**

Sautu zinegotzi jaunak honako hauen inguruan galdetu du: 419. zenbakia, Markinako eta Murgiako neguko kanpainarako diru-laguntzei buruzkoa; 442. zenbakia, ostalaritzarako laguntzei buruzkoa; eta 10 zenbakia, Sarriako 363/5 lurzatian obra-lizentzia bat dela-eta likidatutako hirigintza-aprobetxamenduaren balorazioa zuzentzen duenari buruzkoa. Azkenik, elektrodoen hornidurari buruzko faktura bati buruz galdetu eta, alkateak jakinarazi du kiroldegiko desfibriladorerako direla; izan ere, denbora bat igarota iraungitzen dira, eta txaplata elektrodoak aldatu behar dira.

Galdera gehiagorik egon ez denez, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### **3.- POSTA OFIZIALA.**

Sautu zinegotzi jaunak galdera bat egin du Berretingo aprobetxamendu bati buruz. Alkateak jakinarazi du 2020. urtearen amaieran eta 2021.aren hasieran elurrak kaltetutako zuhaitz batzuen ezohiko aprobetxamendua dela. Aldundiaren % 50eko partaidetzarekin egin zen, eta zuzenean Gestión Forestal Frías enpresari esleitu zitzaion, Udalari 4.444,67 euro dagozkiolarik. Sautu jaunak gaineratu du Aldarro inguruan ere kalteak daudela.



#### 4.- PALATUKO KIROL INSTALAZIOAK BERRITU ETA HANDITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA (ADMINISTRAZIO BALDINTZEN PLEGUA).

Alkateak, informazio-batzordean azaldutakoa errepikatuz, Palatuko kirol-instalazioak eraberritzeko eta handitzeko obren kontratazio-espedientea onartzea proposatu du, Otxotorena Arquitectos SLk idatzitako proiektuaren eta dagokion administrazio-klausulen agiriaren arabera. Azken horri dagokionez, eskaintzak esleitzeko irizpideak zehaztuko dira (kontuan hartuta obra Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kargura finantzatuta dagoela, eta Aldundiak eskatzen duela prezioaren irizpideak, beste batzuekin batera gertatuz gero, haztapan osoaren % 50ekoa izan behar duela gutxienez, eta klausula sozialak eta ingurumenekoak barne hartu behar direla, % 20ko haztapanarekin), bai eta azkenean egokitzen jo den egikaritze-epea ere, zuzendaritzari proposatu ondoren. Gainera, hasiera batean proiektuan aurreikusitako 12 hilabetekoa izan beharrean, 17 hilabetekoa izango da, eta 14 hilabetera murriztu ahal izango da, jarraian azaltzen den moduan.

Irizpideei dagokienez, eta, zehazki, Lopez zinegotziak egindako proposamena dela-eta, 5 punturekin emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko bat edo beste sartzeari proposatu baitu (2,5, Protokolo bat edo neurri espezifikoak izatea laneko sexu-jazarpena eta generoan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta aurre egiteko, eta, 2,5, Enpresan hizkera inklusiboa eta berdintasuneko erabiltzeko protokolo espezifiko bat izatea, non kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan hizkera ez-sexista erabiliko den, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestuko diren, eta berdintasunaren aldeko irudiak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rol eta genero-identitate anitz sustatzen diren), azaldu du enpresak berdintasun-plan bat izatearen balorazioa, azkenean gobernu-taldeak pentsatu zuena, baztertu egin dela, kontratazio-batzorde aholku-emaileek diskriminatzailetzat jotzen duten ebazpen batzuk ikusita eta, berdintasun-teknikariak emandako informazioari jarraiki, kontratuaren exekuzioari atxikitako taldean emakumeak sartzeari alde egitea aurreikusi da, sektore hori maskulinizatuta dagoelako. Jarraian zehazten dira azkenean kontuan izango diren irizpideak. Horiek horrela, Ircio eta Lopez zinegotzi andreak azken irizpide horren aldeko bozketari uko egin diote, eta egokiagozat jo dituzte azken horrek hasieran proposatutakoak.

##### A.- Automatikoki ebaluatzen diren irizpideak: 75 puntu, gehienez.

- 1.- Eskaintza ekonomikoa: 51 puntu, gehienez, ohiko formularekin.
- 2.- Gauzatze epearen murrizketa: 6 puntu, gehienez (2 puntu hilabete bateko beherapen bakoitzeko, gehienez 3 hilabetera arte)
- 3.- Ingurumen-neurriak: 5 puntu, gehienez; proiektatutako egituretarako aurreikusitako zuzen guztiek dagokion jatorri jasangarriaren ziurtagiria izatea.
- 4.- Neurri sozialak: 13 puntu, gehienez.
  - 4.1.- Kontratua gauzatuko duen langile-taldean gutxienez emakume bat izatea: 5 puntu.
  - 4.2.- Enpleguaren kalitatea eta egonkortasuna: 4 puntu, gehienez. Puntu 1 emango da kontratu mugagabea duen pertsona bat kontratuaren exekuzioari lotutako langile-taldean sartzeko konpromisoagatik. Kontratu mugagabeak dituzten 4 langileren integrazio-mugaraino baloratuko da, 4 puntuko gehieneko puntuazioarekin eta modu proportzionalean.
  - 4.3.- Lanpostuarekin zerikusia duten laneko prebentzio, segurtasun eta osasunaren arloko prestakuntza-ikastaroak: 4 puntu, gehienez; ikastaroak enpresaburuak indarrean



dauden xedapen aplikagarrien arabera eman behar duen oinarrizko prestakuntzaren osagarri izango dira. Puntu 1 emango da, gutxienez, 4 orduko iraupenarekin emandako ikastaro bakoitzeko, eta 2 puntu, 8 orduko edo gehiagoko ikastaro bakoitzeko.

**B.- Balio-iritzien bidez ebaluatuko diren irizpideak: 25 puntu, gehienez**

1.- Memoria teknikoa: 25 puntu, gehienez. Ondoren zehazten diren puntuazio-alderdiak jasoko ditu, eta horien edukia nahikoa izango da egin beharreko obren irismena eta edukia neurtzeko. Memoria idatziak gehienez ere 10 orri izango ditu, DIN A4 formatuan, eta 2 plano, DIN A4n tolestutako edozein DIN formatutan, eta obraren ezarpenari eta kokapenari buruzko informazioa, antolaketa eta eraikuntza-prozesua jasoko ditu. Gainera, Gantt motako diagrama bakarra gehituko da, edozein DIN formatutan, lanen programa irudikatzen. Atal hauek izango ditu:

Bereizirik baloratuko diren ondorengo atalak izango ditu:

1.1.- Garatu beharreko lanen programazioa: 10 puntu. Proiektuan aurreikusitako 17 hilabeteak obra-epetzat hartuta, denbora-bilakaeraren diagrama bat aurkeztuko da, Gantt motakoa. Puntu honetan, garrantzitsua da Exekuzio Proiektuaren 1.5 atalean jasotako kontsiderazioak kontuan hartzea.

1.2.- Obra antolatzeko plana: 10 puntu. Honako hauek barne hartuko ditu: hasi aurreko lanen analisia, seinaleztapena, obra-eremuaren balizajea eta proiektuaren segurtasun-azterlanaren arabera hartu beharreko segurtasun-neurriak, eta bat etorri beharko du aurkeztuko den Planarekin.

1.3.- Ingurumen- eta gizarte-neurrien azterketa: 5 puntu, gehienez. Obrak egiten diren bitartean ingurumen-kalitatea bermatzeko aplikatu beharreko neurrien deskribapena (energia- eta ur-kontsumoak murriztuz) eta ingurumen-arloko inpaktuen analisia airearen kalitatean, zaratan eta bibrazioetan, eta obra-faseko landaredian, eta aplikatu beharreko irtenbide eta neurrien proposamena, bai inguruan bizi direnen eta bertatik igarotzen direnen ikuspegitik, bai eta obrarenetik beretik.

Beharrezkotzat jotzen duenak instalazioak bisitatu ahal izango dituela jasotzea komeni dela aipatu da.

Azkenik, teknikariek kontratistari eska dakiokkeen sailkapentzat hartu dute C taldeko (eraikinak) 4. kategoria.

Proposamena bozkatu, eta Udalbatzak, gehiengo osoz, hots, EH-BILDU (6) eta ZUIA BAI (4) taldeetako zinegotzien aldeko botoarekin eta PPko zinegotziaren abstentzioarekin, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Palatuko kirol-instalazioak eraberritzeko eta handitzeko obrak kontratatuzko espedientea onartzea, Otxotorena Arquitectos SL enpresak idatzitako oinarrizko proiektuaren eta exekuzio-proiektuaren arabera. Kontratua esleitzeko baldintza etengarria izango da obrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea 340.622.010 partidan, 2022ko ekitaldiari kredituak gehitzeko espediente baten bidez, eta lizitazioaren deialdia egingo da.

BIGARRENA.- Administrazio-klausulen plegua onartzea.



HIRUGARRENA.- Lizitazio-iragarkia argitaratzea kontratatzailearen profilean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen III. eranskinean jasotako edukiarekin.

LAUGARRENA.- Kontratatzailearen profilean argitaratzea kontratazio-espeditatea osatzen duen dokumentazio guztia, bereziki administrazio-klausula partikularren agiria eta exekuzio-proiektua.

BOSGARRENA.- Kontratazio-mahaiaren osaera argitaratzea kontratatzailearen profilean, SPKLren 140. artikuluan aipatzen den dokumentazioa kalifikatzeko bilera egin baino gutxienez zazpi egun lehenago.

SEIGARRENA.- Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren egintzak agindu eta agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzan.

#### **5.- GIZARTE-ZERBITZUAK BEHIN-BEHINEAN ETA 2022-06-30ERA ARTE MANTENTZEKO ARABAKO FORU ALDUNDIAREN GOBERNU KONTSEILUAREN 904/2016 ERABAKIAREN 4. LUZAPENA.**

Alkateak azaldu du azken urteotan EUDELen bitartez lan egin dela gizarte-zerbitzuen arloan Aldundiari eta Udalei esleitutako eskumenak berrantolatzeko, 2016an Aldundiak Gizarte Zerbitzuen Mapa onartu ondoren, aldi berean, zerbitzu horiek herritarrei emango zaizkiela bermatzen saiatuz. Hori dela eta, Aldundiko Gobernu Kontseiluak akordio bat egin zuen 2016-12-26an Aldundiaren eta 20.0000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrien artean, zerbitzuak ordura arteko baldintzetan behin-behinean mantentzeko, harik eta eskumenak alde baten eta besteren artean banatu arte, beharrezko baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoekin. Erabaki horrek hiru luzapen izan ditu, ezin izan baita banaketa hori lehenago amaitu, eta, orain, laugarren bat proposatzen da; 2018an, udal-eskumeneko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua antolatu zen, eta haren gaineko eskumenak eskuordetzeko eta prezioa kobratzeko eta kudeaketa Aldundiaren esku uzteko erabakiak hartu ziren, eta zerbitzua arautzeko ordenantza eta prezio publikoaren ordenantza fiskala onartu zen. 2020an amaitu zen Eguneko Arretarako Landa Zentroko Zerbitzuaren lana, eta Zuiari benetan eragiten ez dioten zerbitzuen antolaketa amaitu gabe geratu zen (gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta esku-hartze psikosoziala, etxebizitza komunitarioak, adinekoen ostatua).

Udalbatzak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.- Udaleko gizarte-zerbitzuen prestazioa 2022ko ekainaren 30era arte behin-behinean mantentzeko Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiaren laugarren luzapena** onartzea, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 845/2021 Erabakian ezarritakoari jarraiki.

BIGARRENA.- Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzan.

HIRUGARRENA.- Arabako Foru Aldundiari erabaki honen berri ematea.



## 6.- EHBILDU ZUIA-REN MOZIOA ESKOLA-KIROLA BERRESKURATZEKO.

Alkateak, informazio-batzordean azaldutakoa errepikatuz, esan du erretiratu egiten dutela aurkeztutako mozioa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren komunikatua ikusita, zeinak eskolako kirol-lehiaketen etenaldia bertan behera uzten duen. Egia esan, ez zen egoera ulertzen, lehiaketak eteten zirelako, baina entrenamenduak ez, eta badirudi federazioaren eta gurasoen kolektiboen presioak izan direla hori lortu dutenak, osasun-baldintzek berdin jarraitzen dutela baitirudi.

## 7.- TXOSTENAK.

Alkateak jakinarazi du esleipendunak ez duela bete Palatuko kirol-instalazioetako tabernaren emakida-kontratua, lehen urtea amaitzean kanona erregularizatzeari dagokionez, ezta 2. urtetik aurrera eskainitako kanona eguneratzeari dagokionez ere, errekerimendua egin den arren. Beraz, dagokion prozedura hasiko da bidezkoa den entzunaldiarekin, eta hori ebaztea osoko bilkuraren eskumena da.

Elorza zinegotzi andreak jakinarazi du berdintasunari buruzko prestakuntza-saio bat egiteko egunak zehazten ari direla, eta ostiral batean antolatuko dela. Karmeldarren ikastetxerako bisita ere antolatzen ari da, hilaren 5erako, interesa duten korporazioko pertsonentzat.

## 8.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Lopez zinegotzi andreak:

- San Martin kalearen amaieran, Sarriaranzko norabidean, paperontziren bat jartzeko eskatu du, ez dagoelako ezer eta inguru horretatik nahiko jende igarotzen delako.

- Zuiako bizilagunek, oro har, Osakidetza zerbitzuari buruz duten iritziari buruz galdetu du, oso pozik daudela baitirudi, eta hemen ere elkarretaratzea egin zenez... Alkateak eta Tresserras zinegotziak esan dute osasun-taldeko pertsonengatik funtzionatzen duela zerbitzuak ondo hemen, buru-belarri ari baitira.

Sautu zinegotzi jaunak gai hauen inguruan galdetu du:

- Lanbideren kontratazioari buruz, eta alkateak jakinarazi du bikote bat, emakume bat eta gizon bat direla, eta abenduaren amaieran hasi ziren lanean.

- Ea Altubeko txabolan zerbait egin den, eta alkateak jakinarazi du Parke Naturalekoek dena egin dutela Zaldibartxokoa, baina Altubekoa ezetz, aldeztetik titularrak aurkitu nahi dituztelako horren berri emateko; nolana ere, 2 txabola daude, bata ur-jauzian eta bestea goian, Altubeko porturantz.

- Hezkuntza gaiari buruzko galdera egin du, eta alkateak jakinarazi du langileak sartu direla eta Lanbide Heziketaren gaiari buruz hitz egin beharko dutela, behar diren inbertsioak ikusteko.

Azkenik, alkateak jakinarazi du bilera bat egin zela 22.02.18an URAkoeekin, haien egoitzan, baltsaren gaia azal zezaten.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 20:40an, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA  
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA  
MURGIA (ARABA)

Idazkaria,